



GOIZUETAKO UDALA

GOIZUETAKO UDALEKO ZERBITZU ANITZETARAKO LANPOSTUA ALDI BATERAKO ETA ADMINISTRAZIO ERREGIMENEAN BETETZEKO ETA IZANGAIEN ZERRENDA OSATZEKO OINARRIAK.

1. Arau orokorrak

1.1. Deialdi honen objektua izangaien zerrenda bat osatzea da eta Goizueta Udaleko zerbitzu anitzetarako langile baten aldi baterako eta administrazio erregimenean kontratazioa egitea, oposizio-lehiaketa bidez.

1.2. Besteak beste, aipatzearen eta bestelakoak baztertu gabe, hautatutakoaren lan eta funtzioak ondorengoak izango dira:

- Garbitasun lanak orokorrean, herriguneko kaleak, frontoia eta bestelako espazio publikoak, zakarrontziak...

- Udal bulego, instalazio eta biltegi-tako igeltserotza lanak oro har, eta mantentze-lanetakoak.

- Zerbitzuaren berezko makineriaren, lanabesen eta tresnen maneatzea, mantentze-lana eta konpontzea.

- Hiri altzariak paratzea eta haiei dagozkien mantentze-lanak egitea: zutoinak, seinaleak, kale-argiak, bankuak, iturriak etab.

- Altzariak eta tresnak lekuz aldatu eta kolokatzea. Agertokiak, hesiak eta gainerakoak muntatzea eta desmuntatzea, besta eta ekitaldi publikoetan.

- Uren kontrol analitikoak egitea

- Udalaren azpiegitura eta egoitzetan mantentze eta konponketa lanak egitea: iturgintza, elektrizitatea, pintura, igeltserotza, soldadura, zurgintza, mekanika, garbiketa, zangak ireki eta ixtea.

- Udaleko gainerako zerbitzuekin lan egitea, hala eskatzen zaionean, eta kanpoko zerbitzuekin koordinatzea, langile espezializatuak behar direnean.

- Udal administrazio zerbitzuei laguntza eskaintzea eta enkarguak egitea, besteak beste, iragarkiak, bandoak jarri, dokumentuak trasladatuz...

- Baso lanak oro har; itxiturak jarri eta kentzea, zuhaitzak markatzea, desbrozeak, zuloak egitea eta mendi teknikariek dioten bestelako lanetan laguntzea.

- Herri bide ta pisten mantenimendu lanak.



GOIZUETAKO UDALA

Halaber, zerbitzu anitzetako lanpostuaren eginkizun izanen dira honako eginkizun orokorrak:

-Segurtasun eta higiene arauak betetzea, lan bakoitzean erabiltzen diren babes ekipo egokiak behar bezala baliatuta.

-Udalaren ordenantzen betetzea kontrolatu eta begiratzea.

- Noizbehinka eta lan ordutegiaren flexibilitateari dagokionean, zehaztutako lan-programei eta zerbitzuen beharrei egokitzea.

- Edonolako zerbitzu anitzak eta Udalak eskatutako bestelako lanak burutzea.

1.3. Lan-postua lortzen ez duten beste hautagaiekin, hauta-probetan lortutako puntuazioaren araberrako kontratazio zerrenda bat osatuko da, Goizueta Udalak zerbitzu anitzetarako izan ditzakeen beste beharretarako. Kontratuak egiteko zerrenda horren indarraldia 2021. urtera artekoa izango da edo lan-postua jabetzan osatzen den arte.

1.4. Hautaketa prozesu honetatik ondorioztatutako kontratuaren iraunaldia, behin frogaldia igarota, araututako prozeduraren bitartez lan-postua behin betiko osatzen den arte izango da, edo plaza amortizatzen den arte edo hala badagokio plantilla organikoa aldatzen den arte, eta beharrian egoerak kontratazioa justifikatu bitartean. Edozein kasutan, kontratatua izan denak lana utziko du, plaza hutsa jabetzan atera duena lanera gehitzaerakoan.

Halaber, kontratua etengo da, Nafarroako Administrazio Publikoetan langileak administrazio araubidean kontratatze arauak ezartzen dituen irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuko 8. artikuluan jasotako edozein kasu gertatuz gero.

Bi hilabeteko frogaldia ezartzen zaie prozesu honetatik kontratatutakoek, zeinaren barruan Administrazio kontratatzaileak kontratuak eten ahal izango dituen diskrezionalki.

1.5. Lan ordutegia, deialdia egiten duen Administrazioak ezarritakoa izango da, beti lanen beharretara egokituko dena eta aldatu daitekeena.

1.6. Lanpostuak D kategoriako oinarritzko ordainsaria izango du, ordainsarien behin-behineko Erregelamenduak ezarritakoaren arabera, eta plantilla organikoan jaso daitezkeen bestelako ordainsari gehigarriak kontuan hartuta.

2.- Izangaien betebeharrak

Oposizio-lehiaketan parte hartu ahal izateko, izangaiek ondorengo baldintzak bete behar dituzte:



GOIZUETAKO UDALA

- a) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa.
- b) Hamasei urte beteak izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina gainditua ez izatea.
- c) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, DBHko graduatuaren titulua edo Eskola graduatuen titulua izatea (LOGSE aurreko titulua).
- d) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.
- e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea.
- f) Ahozko eta idatzizko B1 mailako euskara gaitasuna ziurtatzea, hizkuntza eskola ofizialak luzatutako gaitasun ziurtagiria edo titulu baliokidea aurkeztuz, edo oposizio fase aurretik euskara ezagutza froga eginez. Euskara froga azaroaren 28an egingo da goizeko 10.00tan
- g) Langabetu eta enplegu-eskatzaile bezela izena emanda egotea Nafar-Lansareko Enplegu Agentziaren batean edo ta beste edozein tokiko Enplegu Agentzietan (lan-hobekuntza eskatzen dutenak barne) eta hau justifikatzea enplegu-eskatzaile ziurtagiri eta hitzordu dokumentu bidez.
- h) B motako gidabaimena

2.2. Aurreko baldintzak betetzen dituztela eskaera orria aurkezterakoan ziurtatu beharko dira hauta-probetan parte hartu ahal izateko.

2.3. Oinarri honetan jasotako baldintza guztiak, eskaera orriak aurkezteko epe-mugan bete beharrak izateaz gain, hautaketa prozedura bitartean mantendu beharko dira eta kontratazio denboran ere bai.

3.- Prozedura

3.1. Ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsitako, Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamenduaren 42. Artikuluan jarritakoaren arabera, behin behineko langileen hautaketa prozedurek, azkartasuna eskaini behar dute kontratazioan.

Nafar-Lansarek Donezteben duen Enplegu Bulegoari 2. oinarrian zehaztutako baldintzak betetzen dituzten enplegu-eskatzaileen zerrenda bidaltzeko eskatuko



GOIZUETAKO UDALA

zaio (lan-hobekuntza eskatzen dutenak barne), zerrendan daudenak hautaprotetan parte hartu ahal izango dutelarik, urgentzia eta beharrian egoera dela ulertzen baita, Goizueta Udalak kontratuta zituen 2 zerbitzu anitzetako langileetako bat jubilatuz denez eta bakarrarekin ez delako aski Udalaren eskumenekoak diren lan eta zerbitzuei aurre egiteko, interes orokorraren eta herritarrei eskeinitako zerbitzuen defentsan.

4. Eskabideen aurkezpena

4.1. Oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskabidea, deialdiari atxikitutako II. Eranskina izango da. 2016ko azaroaren 21eko eguerdiko 12:30 baino lehen aurkeztu beharko da Goizueta Udaleko Erregistro Orokorrean (Herriko Plaza 4-1goa) edo Administrazio Publikoen Prozedura Administrazio Arruntari Buruzko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan jasotako beste bideen bitartez. Eskabidea posta bulegoen bidez aurkeztea erabakitzen bada, gutunazal irekian egingo da Correos-eko langileek eskabidea datatu eta seilatu dezaten, zertifikatu baino lehen. Eskabideak ondorengo baldintzak bete beharko ditu baztertuta ez izateko:

a) Izangaiek baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute

b) Lehiaketan baloratuko diren merituak adierazi beharko dira. Ez dira kontuan hartuko eskabidean jasotzen ez direnak eta behar bezala ziurtatzen ez direnak.

c) Eskabidearekin batera, aurkeztu beharko da: NAN edo IFZ-ren fotokopia konpultsatua, B motako gidabaimenaren fotokopia konpultsatua, deialdian parte hartzeko beharrezko tituluaren fotokopia konpultsatua, eskatutako euskara maila ziurtatzen duen tituluaren fotokopia konpultsatua, aurkeztutako merituen fotokopia konpultsatua, enplegu-eskatzaile (edo lan-hobekuntza) izatearen ziurtagiria eta Nafar-Lansaren hitzordu dokumentua.

4.2. Eskarerak aurkezteko epea luzaezina izango da.

5. Epaimahai kalifikatzailea

- 5.1. Kalifikazio-epaimahaia honakoek osatuko dute:

Lehendakaria: Unai Loiarte Ansa, Goizueta Udaleko Alkatea

Kideak:

1. Kidea: Angel Salaberria Escudero, Goizueta Udaleko aguazila

2. Kidea: Landa Garapen, Ingurugiro eta Toki Administrazio Departamentuko mendi ustiapeneko atalak izendatutako teknikaria

3. Kidea: Fermin Mitxelena Otaño, Hernaniko Udalekoko Brigadako arduraduna



GOIZUETAKO UDALA

4. Kide-Idazkaria: Miriam Arozena San Miguel, Goizuetako Udaleko Idazkaria

Epaimahaia hauta-probak hasi aurretik eratu beharko da.

5.2. Epaimahaia ez da eratuko eta ez du jardungo, gutxienez, epaimahaia osatzen dutenen gehiengo absoluturik gabe.

5.3. Epaimahaiako idazkariak jasoko ditu aktak eta hauetako bakoitza epaimahaikide guztiek sinatuko dute.

5.4. Epaimahaiak erabakiko du gehiegnuz deialdiaren oinarrien inguruan sor daitezkeen interpretazio eta aplikazio zalantzak. Berdinketa kasuan presidenteak kalitatezko bozka baliatu dezake.

5.5. Epaimahaiak aholkulari bereziak gehitu ditzake froga guzti edo batzuetara. Aholkulariak beraien espezialitateko alorrera mugatuko dira eta Epaimahiaarekin alor horretan kolaboratuko du eskusiboki.

5.6. Erakunde Ofizialek luzatutako euskara gaitasun agiririk ez izateagatik euskara maila frogatzeko azterketa Euskarabideako teknikariek egingo dituzte.

6. Izangaien onarpena

6.1. Behin behineko zerrendak

Eskaerak aurkezteko epea igarota, Goizuetako Alkateak onartu eta baztertutako izangaien behin behineko zerrenda publikatzeko aginduko du Goizuetako Udalaren iragarki oholean eta Goizuetako Udalaren web orrian (www.goizueta.eus). Ez balego baztertutako izangairik, zerrenda behin-betikoa izango da.

Baztertutako izangaiek, behin-behineko zerrenda publikatu ondorengo bi egun baliodontan erreklamazioak aurkeztu ditzakete eta dagokionean, izandako akaltsak zuzendu.

6.2. Behin-betiko zerrendak

Erreklamazio epea pasata eta baleude hauek ebatzita, Goizuetako Alkateak onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda publikatzeko aginduko du Goizuetako Udalaren iragarki oholean eta Goizuetako Udalaren web orrian (www.goizueta.eus). Ebazpen berean zehaztuko da hautaketa proben leku, egun eta ordua.

6.3. Onartuen zerrendan agertzea ez da aski deialdian eskatutako betebeharrak betetzen direla aitortzeko. Izangaiek aurkeztutako dokumentazioa edo Udalak



GOIZUETAKO UDALA

bere eskuetan daukana aztertuta, eskatutako baldintzetako bat betetzen ez dela ohartuz gero, interesdunek deialdian parte hartzeagatik dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

6.4. Izangai onartu eta baztertuen zerrendak argitaratzearekin ulertuko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea ezartzen duen 39/2015 legeko 41. artikuluan aipatzen diren ondorioetarako.

7. Hautaketa fasea

7.1. Lehiaketaren balorazioa. Hautagaiek, eskabidearekin batera merituen ziurtatzen dituzten dokumentuak aurkeztuko dituzte, atxikitako baremoaren arabera kalifikatu eta puntuatuko direnak. Epaimahaiak edozein momentutan eskatu dezake aurkeztutako merituen inguruan argipenak egitea edo datu gehigarriak aurkeztea. Dokumentazioa aurkezteko azken egunean behar bezala ziurtatu daitezkeen merituen soilik hartuko dira kontuan.

Dokumentuak originalak edo Udal Administrazioak konpultsatutako izango dira.

Esperientzia profesionala: (gehienez 20 puntu). Esperientzia profesionala ziurtatzeko lana egin den Administrazio Publikoak edo enpresa pribatuak luzatutako ziurtagiria aurkeztu beharko da, zehazten direlarik kontratuaren iraunaldia, burututako lanpostuaren deskribapena eta lanaldia osoa edo partziala izanaren zehaztapena.

- Entitate Publikoan edo enpresa pribatuan zerbitzu anitzetan burututako lan zerbitzuengatik, hilabete oso bakoitzeko: 0,30 puntu hilabete bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko hilabete osoa baino gutxiago osatzen duten lanaldiak).
- Entitate Publikoan edo enpresa pribatuan zerbitzu anitzetako lana izan gabe deialdi honen objektuaren funtzio antzekoetan burututako lan zerbitzuengatik, hilabete oso bakoitzeko: 0,15 puntu hilabete bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko hilabete osoa baino gutxiago osatzen duten lanaldiak).

-

Formazio osagarria (gehienez 10 puntu)

- Deialdi honen objektuaren funtzio antzekoetan Lan Formakuntza edo ta Unibertsitate titulu bakoitzeko: 3,50 puntu. Atal honetako gehienezko puntuazioa 7 puntu izango dira.
- Lanpostuaren gaiekin zerikusia duten hobekuntza ikastaroak. Puntuaketa honako moduan egingo da:



GOIZUETAKO UDALA

-30 ordu edo ta gehiagoko ikastaro bakoitzeko: 0,50 puntu. Atal honetako gehienezko puntuazioa 3 puntu izango dira

Ez dira kontuan hartuko 30 ordura iristen ez diren ikastaroak. Ez dira kontutan izango orduak zehazten ez dituzten formazio ikastaroen ziurtagiriak

- Titulazio akademiko bat lortzeko ikasketa planaren barnean egindako ikastaroak ez dira baloratuko.

7.2. Oposizio ariketa

Honakoak izango dira frogak:

a) Ariketa teorikoa: Epaimahaiak zehaztuko duen galdetegi teoriko praktiko bati erantzun beharko zaio, ordu eta erdiko epean. Galdera hauek deialdi honen I eranskinetako gaitegiarekin erlazioa izango dute.

Ariketa hau 0 eta 30 puntu bitartean puntuatuko da. Hautaketa prozesutik baztertuak geratuko dira 15 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak

Epaimahaiak hautagaiak lortutako emaitzak Udaleko iragarki ohoan eta web orrian argitaratuko ditu, eta gutxienez berrogei eta zortzi orduko aurrerapenarekin, hurrengo ariketaren eguna, ordua eta tokia zehaztuko ditu.

b) Ariketa praktikoa: I eranskinetako gaitegiarekin zerikusia duten egoera edo tresneriaren erabileraren gaineko ariketa zehaztuko du epaimahaiak.

Epaimahaiak erabakiko du, ariketa praktiko hau egun batean edo ta egun gehiagotan egin, baita bere denbora, ariketak duen edukiaren arabera.

Ariketa hau 0 eta 30 puntu bitartean puntuatuko da. Hautaketa prozesutik baztertuak geratuko dira 15 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak

c) Elkarrizketa pertsonala: lanean egin beharreko gaiez eta ingurunearen ezagutzaz. Atal hau gehienez 10 punturekin baloratuko da, eta ez da baztertzailerik izango.

7.3. Ariketak baloratzeko momentuan ahobatasunik ez badago, epaimahaiko kideen kalifikazioen bataz-bestekoa hartuko da kontuan.

7.4. Frogetan parte hartzeko deialdi bakarra egingo da. Hautagaiak nortasun agiriarekin edo bestelako identitate agiriarekin aurkeztuko dira. Baztertuak izango dira aurkezten ez diren izangaiak.



GOIZUETAKO UDALA

7.5. Ariketak kalifikatzeaz bukatuan, Epaimahaiak Udaleko iragarki oholean eta www.goizueta.eus Udal web orrian publikatuko du frogak gainditu dituztenen zerrenda, lortutako puntuazio osoa kontuta hartuta.

8. Gainditutakoen zerrenda, Epaimahaiaren proposamena, deialdia eta dokumentuen aurkezpena

8.1. Azken froga amaitzean, Epaimahaiak deialdia egin duen Administrazioari puntuaketa hoberena lortu duen hautagaiaren kontratazioa egiteko proposamena luzatuko dio.

8.2. Proposamena loteslea izango da deialdia egin duen Administrazioarentzat

8.3. Interesatuari kontratatua izateko proposamena jakinarazten zaionetik, telefonoz egin ahal izango dena, 3 egun naturaleko epea emango zaio deialdiaren 2. oinarrian jasotako baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duen dokumentazioa aurkezteko, ondorengo dokumentuen bidez:

a) Nortasun agiriaren edo baliokidearen fotokopia konpultsatua

b) Funtzio publikoak egikaritzeko zigortuta edo gaitasungabetua ez egotearen zinpeko deklarazioa eta Administrazio Publikoaren zerbitzuren batetik berezia ez egotea.

8.4. Aipatutako dokumentazioa aurkeztuta, hautagaia Administrazioak zehaztutako epean kontratua sinatzera joan beharko da.

8.5. Hautatuako hautagaia berehala batu beharko da lan postura. Lanean hasi ezean (behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik) edo lanean hasiagatik lanpostua berriz hutsik geratzen bada, eskumena duen organoak aukera izanen du hautapen prozesuan lortutako puntuazio ordenaren arabera eskainitako kontratazioa onartzen duten hautagaiak kontratatzeko.

8.6. Lanpostu baterako aldi baterako kontratazioa egin behar denean, une horretan zerrendako lehenbiziko lekuan dagoen izangaiari deituko zaio. Deialdiaren xedeko izangai bakoitza lokalizatzeke bi saiakera egingen dira telefonoz bi lanegun jarraitetan, eta dei horren frogak utziko dira, alegia, eguna, ordua eta inguruabarrak. Telefonozko harremana izateko lehenbiziko saioarekin batera, posta elektronikoa bidaliko da izangaiak emandako helbide elektronikora. Mezu elektronikoa hori egiten denetik egun bateko epean erantzunik lortzen ez bada, eta telefonoz hitz egiterik ere ez bada, zerrendako hurrengoari deituko zaio.



GOIZUETAKO UDALA

Izangaiaren lokalizazioa errazteko, hautagai bakoitzak gutxienez kontakturako eguneratutako telefono zenbaki bat (gehiago ere adieraz ditzake) eta helbide elektronikoa bat adierazi beharko du.

Izangai batekin harremana izanik, eta kontrataziorako eskaintza bat eginik, izangaiak erantzuten ez badu edo uko egiten badio, zerrendako azkeneko postura igaroko da, salbu frogatzen badu arrazoi justifikatuengatik uko egiteko kasu batean dagoela, 8.7 atalean xedatutakoarekin bat.

Izangai batekin harremanetan jartzerik ez bada, zerrendan duen lehentasunari eutsiko dio eta zerrendan hurrengoa denari deituko zaio, harik eta eskaintzen den lanpostua bete arte.

Izendapena eginda, eskaera egin duen toki entitateak aldi baterako kontratatuko du proposaturiko izangaia.

Deia eginda kontratu bat onartzen dutenei ez zaie zerrenda bereko beste lanposturik eskainiko kontratua indarrean den bitartean.

8.7. Honako hauek onartuko dira eskainitako lanpostua kontratatzeari uko egiteko arrazoi justifikatu gisa eta, beraz, ez dute izangaiaren lehentasun ordena aldatuko aldi baterako kontratazioko izangaien zerrendetan:

- a) Aldi baterako ezintasuna.
- b) Amatasun edo aitatasun baimena.
- c) Hiru urtez azpiko haurra zaintzea edo hiru urtez azpiko adingabea harrera iraunkorrean edo adoptatua izatea.
- d) Zaindu behar badu bigarren gradura arteko odol edo ezkontza bidezko ahaide bat, adina, istripua edo eritasuna dela-kausa bere burua ezin gobernatu duena.
- e) Ezkontza edo Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera parekatutako egoera, eskainitako kontratazio administratiboaren hasiera eguna hura eratu ondoko edo aurreko hamabost egun naturalean bada.
- f) Kontratazioren bat indarrean izatea, administrazio araubidekoa edo lanekoa izan.

Aipatu egoeretako batean dauden izangaiek 5 egun naturaleko epea izanen dute, errefusatu duten lanpostua eskaintzen zaien egunetik, agiri bidez eta fede emanek justifikatzeko. Hala bada, zerrendan zuten toki berean jarraituko dute.

Kontratazio eskaintzari uko egiteko arrazoi justifikatua frogatzen duen dokumentazioa epe barrenean aurkezten ez bada, izangaia zerrendako azkeneko



GOIZUETAKO UDALA

tokira igaroko da.

Uko egiteko arrazoi justifikatua dagoenean, idatziz adierazi beharko dute noiz dauden berriz lanerako prest, uko egitea ekarri zuen egoera bukatzen den egunetik hasita. Non eta jakinarazpen hori egiten ez den, ez zaie lanposturik eskainiko.

8.9. Deia eragiten duen zerrendatik baztertuko dira ondoko egoera hauetako batean dauden izangaia:

a) Kontratazio eskaintza onartuta dela, kontratua ez sinatzea, izangaiari egozten ahal zaion arrazoiagatik.

b) Lanpostua bertan behera uztea.

c) Probaldia ez gainditzea, kontratuan aurreikusi den kasuetan.

d) Urtebeteko epean izangaiarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izatea, hark emandako telefonoaren edo helbide elektronikoaren bidez kontratatzeo deiak behin eta berriz eginda ere.

8.10. Deia jasotzen duten izangaiek deialdian eskatutako titulazio eskakizunak eta bestelakoak betetzen dituztela frogatzeko agiriak aurkeztu beharko dute, fotokopia konpultsatua aurkeztuz.

8.11. Eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak hautapen prozesutik baztertuko dira Alkatetzaren ebazpen bidez eta deialdi honetan parte hartzeagatik izan ditzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

9. Helegiteak

Deialdiaren, oinarrien eta hauen aplikaziotik ondorioztatutako ekintzen aurka, ondorengo hautazko helegiteetako bat tarteratu daiteke:

a) Berraztertzeo errekurtsioa, ekintza gauzatu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

b) Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioa, bi hilabeteko epean, errekurritutako ekintza eta hitzarmena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

c) Gorako errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Administrazioaren aurrean, hilabeteko epean, errekurritutako ekintza edo hitzarmena jakinarazten edo argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.



GOIZUETAKO UDALA

Epaimahai kalifikatzailearen erabakiaren kontra gorako errekurtsioa tartera daiteke Goizuetako Udaleko Alkatearen aurrean, hilabeteko epean.

Goizuetan, 2016ko azaroaren 14an

Unai Loiarde Ansa





GOIZUETAKO UDALA

I. ERANSKINA: TEMARIOA

1. gaia.-Aritmetikako eta geometriako oinarrizko erregelak.
2. gaia.-Laneko segurtasun eta higienearen gaineko arauen eta oztopo arkitektonikoen gaineko arauen oinarrizko ezagutzak.
3. gaia.-Soldaduraren ezagutza eta doitze makineriaren oinarrizko maneiarena.
4. gaia.-Igeltserotzako kontzeptu orokorrak. Erremintak. Materialak. Zolatzea eta alikatatzea. Enkofratuak eta murrak zutitzea.
5. gaia.-Oinarrizko argi-zirkuituak: etengailuak, kommutadoreak, entxufe-oinak, lanparak, pitzarazgailuak eta erreaktantziak.
6. gaia.-Iturgintzako eta berokuntzako instalazioen mantentze-lanak: aparatu sanitarioak, txorrotak, zisternak, sifoiak, berokuntza zirkuituak, zirkuituak airez betetzea eta purgatzea, galdara-gelak eta haien osagai bereziak.



II. ERANSKINA: ESKABIDEA

Eskabide orria

..... jaunak/andreak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia: jaioteguna:
..... jaioterria: (.....) eta bizitokia:
(.....) (karrika, zenbakia, solairua, herria eta probintzia) posta kodea: telefono
finkoa et sakelakoa: posta elektronikoa:

Zure aitzinera agertu eta ADIERAZTEN DUT:

-Ez dudala karguan aritzeko galarazten didan eritasunik edo akats fisikorik nahiz psikikorik.

-Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

-Ez naizela diziplina espedientearen bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan, ez eta diziplinako kaleratzearen bidez bidalia ere, eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

-Deialdian eskatzen den titulazioaren jabe naizela.

-B motako gida baimena badudala

-Eskaearak aurkezteko epearen azken egunean beharkizun guztiak betetzen ditudala.

-Euskararen ahozko eta idatzizko B1 maila frogatzeari dagokionez (markatu bidezkoa dena):

Euskararen ahozko eta idatzizko B1 mailako ezagutza izatearen ziurtagiriaren kopia kautotua gehitzen diodala eskabide honi.

Euskararen ahozko eta idatzizko B1 maila ezagutza frogatzeko proba egitea eskatzen dudala.

-Proben hizkuntza (aukeratu bat)

Castellano

Euskara

-Eskabideari agiri hauen fotokopia konpultsatuak erantsi dizkiodala:

Nortasun agiri nazionala.

B motako gida baimena.

Eskatzen den titulazio akademikoa.

Euskararen ahozko, idatzizko eta ulermen maila B1 maila dela frogatzen duen agiria.

Merituak frogatzen dituzten agiriak.

Lan eskatzailea naizela edo ta lan hobekuntza eskatzailea naizela frogatzen duen

agiria.



GOIZUETAKO UDALA

Horrenbestez, iragarritako zerbitzu anitzetako enplegu lanpostua betetzeko eta izangaien zerrenda eratzeko oposizio lehiaketa deialdian onartzea ESKATZEN DUT.

(e)n, 2016koaren(e)(a)n